

KULTUR TEOLOGIA ETA ASKAPEN TEOLOGIA

EUSKAL TEOLOGIA

Paulo Agirrebaltzategi

Orain dela hilabete batzu zera irakurri nuen: "Hain garbi ikusten ez dudana, zera da: askapen teologiaren formulaketarik egokiena, Euskal Herrian, "kultur teologia" delakoan ipintzea". Xabier Basurkoren hitzak ziren (1).

Eta artikuluaeren amaian enbidoa botatzen du eta bere hitza ematen: "Dena den, gai honi ahalegin gehiago beharko genioke eskaini Euskal Herriko teologoek. Neure aldetik, hitza ematen dut hortarako".

Nik neuk ez dut hitzik emanik; baina enbido hori desafioa gertatu zait, X.Basurko, nik idatziriko artikululu bati eta han jaulkitako gogoeta batzuri buruz ari delako.

Itzuli zaidan pilotari helduko diot, bada.

1. Euskal Teologia? Galdera . . .

Hipona-ko Agustin sailduak zioenez, "sinesten duenak, gogo ematen du: sinetsiz ematen du gogo, eta gogoemanez sinesten du... Fedeari buruz gogoematen ez baldin bada, fedea ez da fede".

Jainkoari gizonak ematen dion bizi erantzuna da fedea.

1.) "Teologia Kontzilioandoan", in: Jaunaren Deia 54 (1976) 32. or.

Giza erantzuna izango bada, kontzientea izan behar; eta bizi erantzuna denez, bizitza konkretuaren barnean eta horren eraginez, bere fedez jabetuz eta fede hori explizitatuz joan behar du fededunak.

Teologiak bizi fedean bertan du, bada, giza sustraia. Inolako apezken, apezpikuren edo teologilariaren egiteko berezia izan baino lehen, edozein fededunen egitekoa da teologia.

Fede bizitza da teologiaren oinharritzko ingurunea; ez liburutegi handia, edota teologilariaren bulegoa. Fede bizitzari dario teologia, bizi fedearen gogoemate bezala. Izan ere, fededunak, bere bizitza kontzientean, bere fedea nolabait "ulertu", adierazi eta esan beharra dauka; aitortu beharra dauka, bere egite kontzientean bidez besterik ez baldin bada ere. Eta honek darama fededuna, bakarka nahiz taldeka, bere eta taldearen fede bizitzaz explizitoki gogoematera: teologia explizittoa eta bizitzari lotua egitera.

"Adimen bila dabilen fedea" da teologia. **Gogoeta** bihurturiko fedea besterik ez da funtsean teologia. Baina hitz honek badu bere esanahi tekniko, espezifikoko eta zehatza: hau da, **zientzia** bihurturiko fedea. Teologia-zientzia sistematikoaren oinharrian, ordea, teologia-gogoeta bizia dago.

Teologia sistematikoak, Biblian eta Eliz Tradizioan molde desberdinetan pentsatu eta adierazi den Elizaren fede bizia, sistematikoki pentsamolde berritan berpentsatu eta "mintzamolde" berritan, gorputz sistematiko bezala, ematen du. Alde honetatik, "itzulpena" dela esan genezake teologia sistematikoa.

Teologia-gogoeta biziaren eta Teologia-zientzia sistematikoaren artean non koka genezake "euskal teologiaren" galdera? Zer da euskal teologia: euskaraz, besterik gabe, ematen dena? Euskaldunak bere ingurune sozio-kulturazkotik eta bere jokabide sozio-politikotik, etab. egiten duen bere fede bizipenaren gogoeta? Euskal Herriak, eta hemen Euskal Elizak, dituzten arazo eta jokaera bereziei buruz fedearen hildotik egiten den gogoeta? Euskal kultura tradizionalera edota gaurko Euskal Herriaren dinamika sozio-kulturazkora kristau fedea sistematikoki itzultzea?

Orain dela hiru bat urte eman nuen Deustuko Teologi Fakultatean ikastaldi bat: "Euskal Teologiaren bila..." zuen titulua han erabilitako gaiak. Horretarako prestatu eta idatzi nituen orrialdeak hemen dituz; baina argitaratu, ez orduan eta ez geroztik ez dut gai horretaz zuzenean ezer argitaratu. Hala ere, garai hartan ironiaz aipatu zuen Espainiako Eliz Aldizkari batek Deustun emaniko ikastaldia, Fakultateko programan titulua ikusia zuen agian.

Baina ez zen orduan lehen aldiz kaleratzen euskal teologiaren arazoa.

Nik dakidanez, Rikardo Arregik ipini zuen lehenengoz arazo hau, JAKIN Aldizkarian argitaratu zuen "Euskaltzaleen Jainkoa hil behar dugu" izeneko artikulu sonatu hartan (2). Honela zioen: "Badirudi Euskal Elizaren problemarik handiena mezak euskeraz ematea diren edo ez aztertu eta eztabaidatzea ote den. Hori oso auzi inportantea dela badakit. Baina non dago euskal Theologia? Apenas ezer ikusten den".

Urte batzu geroago Rikardoren anaia Josebak jaso zuen haren deia, euskal teologiaren asmoa zehaztuz. Aurrenik **Rikardo Arregi** deritzan liburuan, anaiak honela zioen: "Hauek guziak gogoan izanik eta, gaur, gure herriaren Jainkoagan sinistu nahi izanez gero, egintza batera zuzendu gaitzan gaurko giro-inguruaren azterketa bat beharrezkoa da. Kristau sinismenak eta teologiak gure gizarteko errealidadearen azterketa sakon bat egin behar dute" (3). Baina batez ere **Fedearen dinamika** liburuan idatzi zuen konklusioan zehatzagotu nahi izan zuen euskal teologiaren asmoa (4). Hain zuzen ere, artikulua azken zatiari titulu haxe eman zion: "Teologiatik ere Euskal Herrira". Berak ematen dituen gogoeta nagusiak hauetara bil daitezke:

- Errealitatetik hasi behar dugu teologia egiten: errealitate

(2). *"Euskaltzaleen Jainkoa hil behar dugu"*, in: Rikardo Arregi, JAKIN Sorta 3, Arantzazu-Oinati 1971, 114-132 or. Berak JAKIN Aldizkarian emandako artikulu hurra, gero berari eskainiko liburu honetara aldatu zen.

(3). *"Euskaltzaleen Jainkoa hil behar dugu"* in: ibid., 52, or.

(4). *"Tillich dela-ta"*, in: Paul Tillich, *Fedearen dinamika* JAKIN liburu sorta 8, Arantzazu-Oinati 1972, 219-232 or.

hori funtsa, zentzua eta egia bilatu behar dizkio teologiak.

- Zein da errealitate hori? Kulturaren bidez gureganatzen dugu errealitatea... Gure ideologiak, gure teoriak, gure tradizioak, gure ohiturek, gure asmoek, itxaropenek, etsipenek, gure ezinak eta ezinaren azalpenek, etab.: guzti horrek osaten du gure errealitatea.

- Kultura interpretatu eta adierazi egiten du errealitate hori.

- Euskal teologiak, beraz, gure bertako errealitatea fedearen aldetik pentsatu eta gogoeman behar du.

Geroztik bizkortu egin da euskal teologiari buruzko eztabaida, aldizkariaren bidez batez ere: Bertan eskuhartu dutenak: Manolo Pagola (5), Joxe Lizarralde (6), Errupin Muxika (7) Xabier Basurko (8) eta Txalintxo (9). Amunsak ere, Zeruko Argia-ko orrialdeetan behin baino gehiagotan aipatu eta "zirikatu" izan du euskal teologiaren gaia.

Uste dudanez, "euskal teologia" —onhartzeko nahiz ukatzeko— hiru aldetara behintzat ulertu izan da.

1) **Hizkuntzak** —euskaraz lantzeak — definituko lukeen euskal teologia. Manolo Pagolak aipatu du euskal teologiaren honelako adiera, eta ukatu egin du euskaraz emateak bakarrik teologia euskal teologia bihur dezakeenik. Berakin batera Txalintxok ere ez du uste alde horretatik euskal teologiaz mintzatzerik dagoenik. Egia da, latinetik edo alemanieratik teologilari handien liburuak euskara itzultzeaz ez dugula euskal teologiarik landuko: euskaraz emateak bakarrik ez du hori euskal teologia bihurtzen. Hala ere, uste dudanez, hizkuntzak kultura bsoa taxutzean duen garrantzia gogoan izanik, euskaraz egiten den teologiak euskal teologiari bideak ireki egiten dizkio behintzat. Kontuan izan behar da, teologia bera ere kulturazko fruitua dela.

(5). "Euskal Teologia baten bila", in: Anaitasuna (1975-11-31) 6. or.

(6). "Fedegintza eta Herrigintza", in: Zeruko Argia (1976-I-4) 11 or.

(7). "Kontziliondoa (1965-1975) eta Jaunaren Deia (1964-1975)", in: Jaunaren Deia (1976, 1) 5-75 or. Artikulu honen azken zatian labur-laburki biltzen du Muxikak Euskal Teologiaren arazoaren inguruko eztabaida.

(8). "Teologia Kontziliondoan", in: Jaunaren Deia 54 (1976, 1) 16-33 or. (Dionisio Amundarainek euskaratua).

(9). "Euskal-Teologi baten bila", in: Goiz-Argi (1976-VI-19) 7. or.; "Euskal Teologi baten bila", in: Goiz-Argi (1976-VIII-3) 7. or.

2) Gaiak —“mamiak”— definituko lukete bereziki euskal teologia? Aipatu ditugun idazle batzu hortik doazela dirudi. Hau da, Euskal Herriak eta Elizak dituzten arazo bereziak bereziki aztertuz eta argituz fede aldetik eta euskal errealitate sozio-politikoari, ekonomikoari, kulturazkoari, etab-i begira egiten den teologiazko gogoeta litzateke euskal teologia. Bide honetatik definitu dutela uste dut, bai Rikardo Arregik, bai eta horren anaia Josebak. Nik neuk ere nabarmendu izan dut alderdi hori, Euskal Herriaren teologiazko gogoetari buruz.

3) Sistema aldetik definituko litzatekeen euskal teologia. Txalintxok ez du uste ez euskaraz, ez eta euskal gaiak defini dezaketarik euskal teologia. Bere ustez, “sistemak” definitu beharko luke: “Amaitzeko: Berriro ere, aurreko idazlanean jarri nion korapiloa jarriko diot Euskal teolojiari, Teoloji bakoitzak, sistema aldetik, bere mami-eguradura bat bear du. Eta, mami-eguradura aldetik, euskal teologia eta katalandar teologia mugatu ditzazkeen berezitasunik ez dut ikusten” (10). Sistemak ere ez du definitzen, beraz.

Hizkuntza —euskara—, mamia —euskal gaiak— eta sistema —(?)— bakarka harturik, nekez izan daitezke euskal teologiaz mintzaldi bat egiteko bide eta hari. Hirurak batean hartu behar direla uste dut, “euskal” eta “teologia”, biak benetan hartzen baldin baditugu, euskal teologiaz hitzegitean.

Hizkuntza, mamia eta sistema: hirurak “kultura” adigaira bil daitezkeela uste dut. Eta orduan euskal kulturak definituko luke euskal teologia.

Kultura, herriaren eredu eta sinbolu sistema bezala definitu ohi da. Kultura ez da herriak berezgarri eta bereizgarri dituen elementuen multzo hutsa (artezko, teknikazko, pentsa-bidezko, erlijiozko, instituziozko, etabarrezko elementuena, halegia). Osotasun sistematiko bat adierazten du kulturak. Izatez, gaur egun, antropologiariek, etnologiariek eta soziologiariek, guztiek, onhartzten eta aitortzen dute kulturaren sistematikotasuna. Honen arabera mintza gaitzke benetan teologiaren sistematikotasunaz?

(10). “Euskal Teoloji baten bila”, ibid.

Baina kultura ez da eredu eta sinbolu sistema soil eta abstraktua. **Bizitza da kultura**. Horregatik ere "Herriaren bizitza" bezala definitu izan da kultura. Herriaren dinamika politikoan, ekonomikoan, sozialean, erlijiozkoan, etabarretan gertatzen eta **mamitzen** da kultura. Honen errealitate konkretu hor egiaztatzen da.

Hizkuntza, berriz, kulturaren eredu eta sinbolu sistemarik nagusia eta oinharritzkoena da. Hizkuntza sistema, kultur sistema osoaren alderdi bat izanik, horren oinharri eta baldintza ere bada; kultura osoari bere irudiera edo konfigurazioa ematen dio gainera.

Guzti hau honela baldin bada, euskal teologiaren arazoa **kultur teologiaren** arazo bihurtzen da, eta, beraz, euskal kulturaren arazo.

Teologia, giza oinharrian, **gogoeta bizia** dela esan dugu; adiera teknikoan, berriz, **zientzia sistematiko** bezala azaldu dugu, Baina beste adigai bat ere erabili dugu, teologia zer den adierazteko: **itzulpena**.

Euskal teologiarik baldin bada, edo izan baldin badaiteke, **itzulpena** izan behar du: hau da, historian zehar Elizaren fedea beste kulturetan eman baldin bada, euskal fededunek eta euskal Elizak euskal kulturara itzuli behar du kristau fedea. Kultura osoa da mintzabidea; eta kultura osora itzuli behar da fedea; baina batez ere euskarara —euskal kulturaren expresabiderik oinharritzkoena denez—, euskarara itzuli behar du fedea euskal teologiak; euskaraz izan behar du euskal teologiak.

Euskal teologiak Euskal Herriaren bizikeraren **gogoeta** izan behar du; euskal gaiak fedearen aldetik aztertzeak eta argitzeak, egunero euskal kultura mamitzen ari deneko giro, inguru eta dinamika sozio-ekonomiko, politiko, erlijiozko eta ideologiko horren barnean eta horretarik kristau fedearen bizi gogoeta gitea esan nahi du.

Azkenik, euskal teologiak sistematikoa izan behar du, benetan bere esanahi tekniko eta espezifikoa erabiliko badugu "euskal teologia" esakuna. Euskaraz egiten den homilia ez da euskal teologia, ez eta kristau batzarre euskaldunak, bere

ekintza eta burruka politikoaren edo sozio-kulturalaren inguruan, edota gizarteko gorabeheren inguruan egiten duen fedezko gogoeta, nahiz eta euskaraz egina izan. Euskal kulturaren eredu eta sinbolu sistemaren arabera lantzen den fedearen pentsaketa sistematikoa eta osoa izango da euskal teologia (11).

Euskal teologia —bizi gogoeta denez— eta euskal teologia —zientzia sistematikoa denez— ez daude bata bestearen aurka. Sistema ez da berez gogoeta konkretua baino lehenagokoa; teologiazko gogoeta bizi eta konkretuak etengabe lantzen eta eratzen du teologiazko sistema abstraktua. Euskal Herriaren errealitate biziaren barnean egiten den teologiazko bizi gogoeta konkretuak egiaztatu behar du teologi sistemaren egia. Teologiazko gogoeta konkretua ez da, beraz, teologi zientzia abstraktuaren aplikazio hutsa.

Kultur teologiaren bidetik ulertu eta azaldu behar dela uste dut, bada, euskal teologiaren arazoa. Bide hori iradoki nahi izan nuen nere artikuluan hartan, zera esaten nuen: "Eta bide honetatik, sozialismoaren argitan euskal SAKek egin nahi duen teologiazko gogoetak eta kritikak ere kulturaren teologia —hobe esan, kultur teologia— oinarritzat eta bidetzat hartu beharko lukeela iruditzen zait" (12).

X. Basurkoko galde zeinua jarri dio nire baieztapen horri. Eta horrela euskal teologiari buruzko "bilaketa" luzatu eta galdera sakonagotu egin du. Orain arte euskal teologiaz ihardun direnak, teologia horren "bila" edota galderaz eta zalantzez beterik azaldu baldin badira, kultur teologiaren argitan uler daitekeela esanez ez dugu arazoa konpontzen, kultura adigaia bera, eta bereziki euskal kultura bera, "kritikoki" hartu behar badira, Basurkoko berak eta Txalintxok ere eskatzen dutenez.

(11). Txalintxok ere, euskal teologia sistema bezala difinitu beharko litzatekeela uste du; baina ez du horretarako biderik aurkitzen. Nere ustez, horrelaxe difinituz hain zuzen ere, euskal teologiari izan daiteke, euskal kulturari baldin bada. Txalintxok esan beharrik ez dauka, kulturaren muina argitzea ez dela inolaz ere erraza jakiteko. Horregatik, haren aholkua jaso aurretik, hamar baino gehiagotan irakurria eta aztertua nuen "Gaudium eta spes" Konstituzioak kulturari buruz dioena. Eta horretaz gainera, dozenaka liburu ere bai, Hala ere, oraindik ez nago oso ziur kulturaren adieraren aberatsa ulertzeko gauza naizen ala ez.

(12). "Sozialismoaren aldeko kristauak", in Jaunaren Deia 53 (1975). 76. or.

Ni ados nator biekin horretan; horretara garamatza bereziki kultur teologiaren eta askapen teologiaren arteko alderaketak. Horregatik euskal teologiaren galdera areagotu egiten dugu oraingoz.

Dena dela, Basurko adiskidea nirekin bat datorrela dirudi, nere artikulu hartan "kultur teologiaz" adierazi nahi nuenari buruz, nahiz eta esakunari buruz ez ados egon. Garrantzizkoa izana da, hain zuzen ere, eta ez izena. Nere aldetik, kultur teologiak Euskal Herriarentzako askapen teologia egoki adieraz dezakeela uste dut, kulturaren beraren esanahia kritikoki sakonduz. Horregatik bide honetatik joko dugu aurrera.

2. Kultur Teologia

Euskal teologia kultur teologiaren bidetik ulertu beharko genuke; baina zer da benetan kultur teologia? Xabier Basurkok, bere aipaturiko artikuluan, egina du teologiazko jokabide eta mota desberdinen aurkezpena, bereziki mende honetakoena. Teologibide bakoitzaren berezitasunak nabarmentzen ditu. Eta azkenik, galdera bezala uzten du kultur teologiarena.

A) Kultura eta kulturak

Kroeber eta Kluckhohn antropologiariek 250 definizio desberdinetatik gora sailkatu dituzte; eta horik guztiak nolabait bateratu nahian, honela bukatzen dute beren aldetik: "Sinboluen bitartez lorturiko eta besterenganaturiko jokabideen eta jokabiderako eredu explizitoez eta implizitoez osatzen dute kultura" (13).

Eredua eta sinbolua dira definizio honetan adigairik nagusienak. Elkarren kontrako bi aldetatik eman izan ohi da ere kulturaren definizioa: batetik, gizonak, gizartekide bezala, sortu dituen, eta gizartean transmititzen diren hainbat elementu objektibo: jakintzako, artelanak, legeak, ohiturak, erritoak, teknikak, etab. Kulturaren ikuspegi "materiala" da hau.

(13). *Culture: A critical Review of Concepts and Definitions*, Harvard University Press, Cambridge (Mass.) 1952, 300. or.

Alderantziz, eta ikuspegi "idealista" batetatik, balioak, ideiak, sinesteak, pentsakerak: guzti hauen multzoa izango litzateke kultura. Bi alderdiok lotzen dituzte "eredu" eta "sinbolu" adigaiek.

Kultura ez da gizartearen balio, adiera eta arau multzoa bakarrik. Balioak, adierak eta arauak, gizarte bakoitzean —edo kultur barruti bakoitzean— eredu sistema bihurtzen dira: balio ereduen sistema (modelos valorativos), adiera ereduen sistema (modelos cognoscitivos), ihardun ereduen sistema (modelos operativos). Eredu horien arabera jokatzeko du gizar-teak, eta gizarte barnean gizon bakoitzak.

Bestalde, kultura ez da kultur produktuen multzoa bakarrik, Eredu haien arabera sortuak eta landuak. Objektu kulturazko horiek, kulturazkoak direlako hain zuzen ere, sortu eta landu dituen gizon eta gizarteari loturik daude; gizonak produktu horietan ipini dituen bere izpirituko balioen, adierak eta arauen azalpen dira. Produktu kulturazkoak direnez, eta ez objektu hutsak, sinbolikuak dira errealitate horiek: legeak, erritoak, hizkuntza, teknikak, ohiturak, etab. Sinbolu sistema baten bidez azaltzen ditugu errealitate horien bitartez mamitu nahi diren balioak, adierak eta arauak.

Honela, bada, funts-funtsean eredu eta sinbolu sistema da kultura. Sistema hau, berriz, gizartearentzat eta gizon bakoitzarentzat jokabide markoa eta bizitzeko mundua gertatzen da. Bere ingurune naturalean gizarteak sortzen eta eratzen duen ingurune artifiziala da kultura. Kultur gizartearentzat ez dago mundu naturalik, berak landu duena baizik; kultur mundua baizik. Kulturazko mundu horixe da naturala beretzat.

Eredu eta sinbolu sistema desberdinen arabera kulturak ere ugariak eta desberdinak dira. Eta honek dakar Herrien desberdintasuna eta ugaritasuna ere. Herria da, izan ere, kulturaren subjektu sozial berezko eta espezifikoa. Kultura berezia eta bereizgarria duen gizartea da Herria.

B) Kultur teologia

Jainkoaren agerkundea hartzen duen gizona eta herria —Jainkoaren herria— eta bere fedea azaltzen duena, bera bizi

deneko eta berak bizi dueneko kulturaren arabera hartzen eta azaltzen du. Lege honen gainean egin daiteke teologia. Fedean gertatzen den Jainkoaren agerkundearen eta giza kulturaren arteko elkartzearen gogeta sistematikoa da teologia.

Kultura bakoitzaren eredu eta sinbolu sistemaren barnean lantzen den teologia deitzen dugu, hain zuzen ere, kultur teologia (14).

Kultur teologia ez da, beraz, kulturaren teologia. Inoiz honela ulertu izan da: hau da, teologia osoaren zati bat bezala, alor bat bezala. Honela ikusten du, esate baterako, G.Thils-ek. Kultur gai berezi batzu fede aldetik aztertzea litzateke orduan kultur teologia: Jakintzaren teologia, artearen teologia, teknikaren teologia, etab. Kultura ez da hartzen bere osotasunez.

Baina kultur teologia ez da ere giza kulturgintzak duen erlijiozko dinamika edo sustraia bilatzea. Ez da erlijio filosofia. Kultur teologia ez da teologia kulturala, gizonak egiten duen edozein lan edo produkturi berez dariona edo. Paul Tillich-ek kultur teologiaz hitzegiten duenean, inoiz, bide horretatik jotzen duela ematen du. Baina Teologilari handi honen oin-harrizko ideia nagusia ez da hori, eta bai teologia "dialogalarena": hau da, teologia ezin daitekeela egin giza kulturatik aparte; elkarriketa bat bezala da fedea, eta honi darion gogeta teologiazkoa ere bai.

Batek baino gehiagok teologia liberalaren susmoa hartzen du kultur teologia esatean. Biok badute elkarrekin zerikusirik; baina kultur teologiak ez du esan nahi kulturaren alderdi edo joera inmanentea; alderantziz, jainkozko Agerkundearen traszendentzia baieztatzen du. Baina Agerkunde hori, eta horri dagokion fedea, bere azalpenean, giza kulturak baldintzapetzen du. Nork bere kulturaren arabera hartzen eta azaltzen du gizonak jainkozko Agerkundera.

Horretaz gainera, kultur dinamikaren eta jainkozko Agerkundearen elkarbarneratze horretan, honek transzendente irauten du, kultur dinamikarentzako indar kritiko eta eragile

(14). Kultur teologiaz zabalago nere beste liburu baten konklusioan idatzi dut: *Configuración eclesial de la cultura*, Ed. Mensajero, Bilbao 1976, 347-364 or.

eskatologiko bezala. Kultur teologiak, beraz, ez du adierazten kulturaren baieztapena bakarrik; kultur teologia ez da kulturaren zuritzaile hutsa. Baieztapenaren teologia ezezik, ukapenaren teologia da kultur teologia: kultur dinamikaren kritikatzaila zorrotza izan behar du teologiak, fedearen gogoeta sistematikoa denez.

Kultur teologiak teologiaren desberdintasuna eta ugaritasuna adierazten du gainera, kulturak ere desberdinak eta ugari direlako. Euskal teologia, beraz, Euskal Herriaren (euskal Elizaren) teologia litzateke, euskal kulturari dagokiona. Baina kultur teologia ez ote da orduan teologia nazionala? Honek susmo txarrak sortzen ditu beharbada irakurlearengan. Horregatik beharrezkoa dugu kulturaren beraren esanahi dinamikoa eta kritikoa sakontzea.

3. Kultura eta askapena

Kulturak eta Herriak elkar definitzen dute; baina kultura eta herria ez dira zera abstraktuak. Kultura bizitza da: Herriaren bizikera; eta Herria gizartea da, barruko tirabira, burruka eta guzti.

Kultura, eredu eta sinbolu sistema denez, ez da gizarte osoak gaineratik ezarria duen gainegitura transzendentea; gizartearen dinamika bizian konkretatzen eta egiaztatzen da etengabe, eta mamitu ere bai, kultura. Zera soziala, dinamikoa eta bizia da kultura.

Orain arte egin dugun kulturaren analisi abstraktu hutsean geldituz gero, gizarte barruko tirabira eta klase burruken gaineratik dagoen zerbait bezala ikusi ohi da; eta orduan klase gainhartzaileak bere interesak zaintzeko aparatu ideologiko bihurtu ohi du kultura: adigaita bera maila abstratutara eta aristokratikotara eramanez, eta kulturaren dinamika osoa, egitura sozialei eusteko tresna bezala erabiliz. Honela baldin bada, kultur teologia, kultur sistema horretara itzultzen dena, klase gainhartzailearen tresna ideologiko bihurtzen da, kultura osoarekin batera.

1) Kultura gizabidea da (15): gizonaren eboluzio bide berezia. Gizonak bere eskuetan hartu du —nolabait esateko— bere eboluzioa. Eta mundu naturalari egokituz joan beharrean —egokitzapena da eboluzioaren legerik nagusienetako bat—, bere mundu kulturazkoa sortuz eta landuz egiten du gizonak bere bide historikoa.

Lanaren bidez gizona bere inguruko munduaz jabetu egiten da. Lanak, berriz, hemen ez du esanahi estua —eskulana, esate baterako—: kultur lan guztia adierazten du, hau da, edozein erataria inguruko mundu naturala lantzeko eta gizatiartzeko egiten den iharduna. Orduan, artea, nahiz zientzia, nahiz inginaritza, nahiz nekazaritza, etab.; dena lana da. Lana du, hain zuzen ere, gizonak, bere ingurunea gizatiartzeko eta bere burua gizonagotzeko bidea.

Gizonaren gizabidea, berriz, askabidea da: askatasun bidea. Kulturgintza gizonaren askatasuna lantzea besterik ez da funtsean. Hiru aldetatik ikus daiteke gizonaren kultur askatasuna: kosmikoa, sozio-ekonomikoa eta pedagogikoa.

Askatasun kosmikoa lortuz doa gizona, naturak gizonaren aurreko izakiei ezartzen dizkien lege naturalen gainetik, mundu naturala gaindituz, bere mundu kulturala sortzen eta lantzen duenean. Munduaz jabetuz doan neurrian, gizonak bere askatasun "kosmikoa" lortzen du.

Askatasun sozio-ekonomikoa lortzen du gizonak, animaliek duten kolektibitate multzoa gaindituz, gizarte eratua, pertsona libreen arteko sozietatea, lantzen duenean. Gizonen arteko kolektibitatea ez da animalien asoziazioa, burujabe direnen sozietatea baizik, pertsonen sozietatea baizik. Honek zera esan nahi du: gizona bere lanaren, bere kulturgintzaren jabe dela; inork ez diola bere sormenaren fruitua lapurtzen, inoren azpian gizona jartzeko.

Askatasun pedagogikoak edo pertsonalak, berriz, zera adierazten du: Gizartearen kultur sistemak ez diola inori

(15). Kulturari buruzko azterketa filosofikoa edo, hildo honetatik, beste artikulua artikulua batetan zabalago eta sakonago emana dut. Ik. "Gizona kultura bidetan", in: Kultura eta fedea (JAKIN sorta 4), Arantzazu-Oinarti 1971, 15-38 or.

bere sormen pertsonala itotzen, bideratu eta zuzendu baizik. Pedagogia, hain zuzen ere, gizon bakoitzaren sormen hori bideratzeko eta indartzeko da.

Giza kulturak, berez, hiru aldeetatik baieztatzen du gizonaren askatasuna.

2) Kultura ez da kulturala bakarrik, nolabait esateko; kultura sozio-kulturala da. Dinamika sozialaren barnean konkretatzen eta mamitzen da etengabe Herriaren kultura. Horregatik kultura ezin daiteke ekonomiazkotik, politikazkotik, erlijiozkotik, ideologiazkotik, gizartezkotik bereiz.

Kultura ez da sistema hutsa; bizitza da, dinamika da. Herriaren kultura, bada, ez da behin eta betirako sortu edo ezarri eta finkaturiko sistema geldia; kultura aldakorra eta bizia da, bere identitate historikoa gordetzen duen bitartean ere. Izan ere, gizonak, kultur sistemaren barnean ez du bere sormena galtzen.

Sozio-kulturala delarik, gizartearen gorabehera guztiak jasaten ditu Herriaren kulturak ere. Burruka sozio-ekonomikoak funtsean kulturazko burruka darama. Klase sozialen arteko burrukak eragin handia du Herriaren kulturaren dinamikan.

Klase gainhartaileak, kultur sistema osoa bere interesen zerbitzuetarako egokitzen duelarik, nolabait klase kultura bihurtu nahirik, Herriaren kultura bera ukatu egiten du. Klase gainhartaileak, bada, Herri kultura ukaturik, Herriari bere kultura lapurtzen diolarik, Herria bera ukatzen du. Horregatik klase herritarren kultur askapena, beren klase askapenetik dator: eta horrela baieztatzen dute Herria, eta Herriarekin batera beronen kultur nortasuna eta identitatea ere bai.

Klase gainhartaileak Herriaren kultura "lapurtu" eta bere klase kultura bihurtu baldin badu, normala da klase zapalduen aldetik kontrakultura bat sortzea. Kontrakultura hau, ordea, ez da antikultura, klase gainhartailearen kultura zapaltzailearen kontra kultura askatzailea baieztatzea baizik. Herriaren, klase herritarren, kultura askabide dela baieztatzea da.

4. Euskal kultura eta euskal teologia

Gaur egun euskal kultura baieztatzea, euskal klase herri-tarren egitekoa da. Hemengo klase gainhartzailleak atzerriko kultura ezarri dio Euskal Herriari, klase kultura bezala. Horregatik euskal kultura, gaur egun, kultura askatzaile bezala agertzen zaigu: euskal klase herritarrentzat askabide da gaur euskal kulturaren alde burrukatzea. Euskal kultura kontrakultura da gaur egun.

Bide honetatik argi genezake euskal teologiaren eta askapen teologiaren kidetasuna: euskal teologia kultur teologia bezala adieraziz, hain zuzen ere. Honek ez du esan nahi berez euskal teologia, kultur teologia bezala, askapen teologia izango denik; baina gaurko Euskal Herriaren eta euskal kulturaren egoeran, "kontrakultura" honen dinamikan euskal teologia askapen teologia bakarrik izan daitekeela uste dut.

Xabier Basurkok, aipaturiko bere artikuluaen 17. oharrean dakarren erderazko testu zati bat honera aldatzeko dudan irrika ezin dut alendu. Honela dio H.Assman-en aipamenak: "No deberíamos jamás usar la palabra "pueblo" o la expresión "masas populares", en América latina, sin evaluar las implicaciones étnicas, junto con las de la clase social, de semejantes términos. Siguen existiendo en Latinoamérica tremendos problemas de corte étnico-racial que ciertos esquematismos de "análisis de clases" dejan intocados... El enfoque de esta problemática... sigue demasiado tangencial en la teología de la liberación... Basta que señale aquí, sin entrar en detalles y ejemplos, que ya existen algunos intentos serios de acercamiento a esa dimensión étnica de las clases oprimidas. Los esfuerzos de reflexión cristiana en lenguaje popular y los procesos de gestación de ese lenguaje en el seno del pueblo, incluyendo sus características locales simultáneas de étnia y clase, se vienen multiplicando. Pero, hay que reconocerlo, en ese esfuerzo estamos todavía en los inicios". (16).

(16). "Teología Kontziliandoan", in: ibid, 31. or. Concilium aldizkariak bere 121 zenbakia (1977) gai honi buruz eman du. Monografiak titulu hauxe du: "Étnicidad y Teología". Euskal teologiaren eta kultur teologiaren arazoa sakontzeko eta argituz joateko zenbaki oso irakurgarria eta aztergarria iruditzen zait.

Basurkok berak aipatzen duen bezalaxe aldatu dut honera, darabilgun gairako oso irakurgarria iruditu zaidalako, eta nere artikulu honek neurri handi batetan Basurkorekin berarekin elkarrizketa izan nahi duelako.

Kultur teologiak gizonaren kulturazkotasuna baieztatzen du: hau da, gizona mundu kultural batetan bizi dela, eta ez mundu "natural" batetan. Antropozentrikoa da, alde honetatik behintzat, kultur teologia; ez da kosmozentrikoa. Naturezari buruz gizona libre eta kulturadun dela baieztatzen du. Baina kultur teologia ez da teologia kosmozentrikoaren edo "natur teologiaren" kontrakoa bakarrik.

Kultur teologiak gizonaren askatasun kosmikoa ezezik, askatasun sozio-ekonomikoa eta pedagogikoa ere baieztatzen ditu, giza kultura bera baieztatzen duelarik.

Euskal teologia, berriz, kultur teologia bezala ikusten badugu, euskal kultura herritarraren baieztapena da; klase gainhartzailearen erdal kultura zapaltzailearen kontra, hain zuzen ere. Euskal klase herritarren teologia da euskal kultur teologia; horregatik askapen teologia da.

Euskal kultur teologia, Euskal Herriaren eta euskal kulturaren egoeran eta oraingo dinamikan, ez da inolaz ere klase gainhartzaileak ideologikotu duen kulturari dagokion fede gogoeta sistematikoa. Orduan kultur teologia bera ere klase gainhartzailearen interesen zuritzaile izanen litzateke. Eta, beraz, gehiago izango litzateke teologia zapaltzailea, askatzailea baino. Alderantziz, klase gainhartzailearen eta honek egin dezakeen teologiaren ukapena da euskal kultur teologia. Euskal kulturaren askapen dinamikan sartzen da euskal kultur teologia. Dinamika honen baieztatzailea da. Eta horregatik kultur teologiak, gaurko Euskal Herriaren eta kulturaren egoeran eta dinamikan, askapen teologia esan nahi du, teologia askatzailea izan behar du. Hemen eta gaur euskal kultura baieztatzeak, hori askatzea esan nahi du.

Teologia "nazionala" ote kultur teologia? Gaurko Euskal Herrian, klase gainhartzaileak Euskal Herria, euskal Nazioa, ukatu egiten du; klase herritarrek baieztatzen dute gaur Euskal Herrian Herri hau, eta nazio hau; euskal kultura herritarra

baieztatzen dutelako eta horren alde burukatzen direlako. Horregatik, euskal kultur teologia nazionala da, herritarra izanez; Euskal Herria eta euskal kultura baieztatuz, askabidean jarri eta bultzatu nahi dituelako.

* * *

Honeraino iritsi den irakurlea ohartu da dagoeneko, artikulua hau nahiko bihurria eta katramilatua dela. Dena dela, beharbada balio izan dio hortik eta hemendik airean dabiltzan eztabaida, susmo eta asmo batzu jarrotzeko.